

KIROLEKO JARDUERA PUNTUALEI DIRU-LAGUNTZAK EMATEA ERREGULATZEKO ORDENANTZA

1.- XEDEA

Oinarri hauen xedea Lasarte-Oriako kiroleko klub eta/edo entitateei zuzenduriko diru-laguntzak erregulatzea da. Diru-laguntzak etekin-asmorik gabeko erakundeei emango zaizkie, kiroleko jarduera puntualak egin ditzaten, betiere, duten proiektzio eta interesagatik, bat badatoz Lasarte-Oriako Udalaren kirol-politikarekin.

Laguntza horiek urtero banatuko dira, urtaldi ekonomikoaren hasieran, Udalaren Kirol Zerbitzuaren aurrekontuak horretarako bidea ematen duen heinean. Ez zaio diru-laguntzarik emango lehendik ere beste entitate edo instituzioren batek %100ean diruz lagundua dagoen jarduerarik.

2.- ONURADUNAK

Oinarri hauetan araututako diru-laguntzen onuradun izateko, kiroleko klub edo entitateak ondoko baldintza hauek bete behar ditu:

a) Indarrean dagoen legediaren arabera eratua egotea eta Eusko Jaurlaritzaren kiroletako elkarte eta entitateen erregistroan inskribatua egotea.

b) Identifikazio fiskaleko kodea edukitzea eta betebeharrak fiskaletan egunean egotea.

c) Elkartearen egoitza eta jarduerak garatzeko azpiegitura nagusia Lasarte-Oriako udalerrian edukitzea.

d) Eskola-kirolerako araudi forala betetzea.

e) Dena delako jarduera Lasarte-Oriako garatuko da. Udalerritik kanpo garatzen bada, kirolari parte-hartzaileek Lasarte-Oriakoak izan beharko dute.

3.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO ERA ETA EPEA

Diru-laguntzen eskabideak Lasarte-Oriako Udaleko erregistroan aurkeztu beharko dira, kirol-ebentua egingo den urteko urtarrilaren 15a baino lehen.

Behin epe hori igarotakoan, egutegiko 15 egunean, topaturiko akatsak zuzentzeko edo falta datekeen dokumentazioa osatzeko aukera izango da.

Eskabideari ondoko agiri hauek erantsiko zaizkio:

- Honako oinarri hauek onartzen dituelako konpromisoa.

- Identifikazio fiskaleko kodearen fotokopia.

- Eusko Jaurlaritzaren kiroletako elkarte eta entitateen erregistroan inskribatua egotearen ziurtagiriaren fotokopia.

- Banku edo aurrezki-kutxaren dokumentua, entitate eskatzailearen kontu korrontearen jabetza ziurtatzen duena.

- Jarduera antolatzeaz arduratzen den pertsona edo taldea.
- Antolatu nahi den jardueraren gaineko txosten xehatua (eman beharreko diru-laguntza ebaluatzeko oinarritzat balioko duen informazioa barne).
- Parte-hartzaileen kirol-maila.
- Jardueraren eremua.
- Jarduerako parte-hartzaileak, kategoriak eta adinak adieraziz (azken ediziokoak).
- Jardueraren ematen zaion zabalkundea (azken ediziokoak).
- Antolatuko den jardueraren diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu xehatua.
- Aurreko urtaldian gauzaturiko jardueraren memoria justifikatzailea (eman beharreko diru-laguntza ebaluatzeko oinarritzat balioko duen informazioa barne).
- Aurreko urtaldiko aurrekontuaren likidazioa, behar bezala identifikaturiko sinestamenduak aurkeztuz. Ez dira sinestamendu moduan onartuko: Entitatearen kostuak, diru-laguntzaren xede den jarduerarekin zerikusirik ez badute (lokalen errenta, enplegatuen nominak...). Ostalaritzako zerbitzuen kostuak, diruz lagunduriko jardueran parte hartzen dutenek sortuak ez badira (horietatik kanpo gelditzen dira jardueraren antolatzaileak). Udalerritik kanpo egiten diren jarduerak, baldin eta jarduera udalerrian egin badaiteke. Ondasun mobiliarioak eta inmobiliarioak erostea.

Eskaturiko dokumentazio guztia aurkeztu ezean, edota datuak ezkutatzea edo faltsutzea gertatuz gero, galdu egingo da diru-laguntza jasotzeko eskubidea.

4.- DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA BANATZEKO IRIZPIDEAK

Jarduera horiek diruz laguntzeko xedatuko den kopurua Lasarte-Oriako Udalak uneko urtaldian kiroleko diru-laguntzetarako (Eskola-Kirolekoak kontatu gabe) onetsia daukan kopuruaren % 50ekoa izango da.

Jarduera horiek diruz laguntzera xedaturiko kopurua (Herri arteko Pilotako Torneoan parte hartzea finantzatzera xedaturikoa izan ezik) kiroleko entitateek lorturiko puntuen totalaz zatituko da (jarraian zehazten diren balorazioko adierazlearen arabera). Era horretara jakingo da puntu bakoitzaren diru-balioa. Diru-laguntza bakoitzaren zenbatekoa ateratzeko, diru-balio hori entitate bakoitzak lortzen dituen puntuez biderkatuta da.

Balorazioko adierazleak ondoko hauek dira:

- Probak azken edizioan izan dituen parte-hartzaileen kopurua:

- < 50 kirolari 10 puntu
- > 50 kirolari 20 puntu
- > 100 kirolari 25 puntu
- > 250 kirolari 30 puntu
- > 500 kirolari 40 puntu

- Probaren kirol-maila:

- Elitea edo profesionala 30 puntu

- Amateurra 10 puntu

- Probaren eremua:

- Udalerrikoa 10 puntu

- Lurraldekoa 15 puntu

- Autonomikoa 20 puntu

- Estatukoa 25 puntu

- Nazioartekoa 30 puntu

- Probak azken edizioan izandako autofinantzazio-maila (kanpoan gelditzen dira udalaren laguntzak):

- > 75 % 30 puntu

- > 50 % 15 puntu

- > 25 % 5 puntu

- Proba gauzatzean bi hizkuntza ofizialen erabileran izandako oreka: dokumentazio administratiboa (A), publizitatea (B) eta megafonia (C):

- Hiru ataletan 30 puntu

- C + beste edozein 20 puntu

- C atala bakarrik 10 puntu

5.- DIRU-LAGUNTZEN ORDAINKETA

Lasarte-Oriako Udalak ordainduko ditu entitate bakoitzari esleituriko diru-kopuruak.

Baldin eta, zirkunstantziaren bat dela medio, aurreikusiriko jarduera gauzatzen ez bada, Udalari itzuli egingo dio jasotako diru-laguntza, gehienez ere 30 eguneko epean, proba egitekoa zen egunetik kontatzen hasita.

6.- PUBLIZITATEA

Diru-laguntzaren entitate onuradunak egiten duen publizitatean, Lasarte-Oriako Udalak probaren kolaboratzaile gisa agertu beharko du.

Bide publikoan jarritako publizitateak errespetatu egin beharko du indarrean dagoen araudia.

7.- EZ BETETZEA

Entitate antolatzaileak honako araudi honetan finkatzen diren obligazioetakoren bat edota udalaren edozein eratako arauen bat ez betetzeak berekin ekarriko du emandako diru-kopurua ezeztatzea, gutxitzea edo itzularaztea, Lasarte-Oriako Udalaren iritzira, aurretik

interesatuari entzunda.

8.- DIRU-LAGUNTZEN KONTROLA

Lasarte-Oriako Udalak beretzat gordetzen du egokitzat jotzen dituen kontrol guztiak egiteko eskubidea, entitateek emandako datuak eta haiei emandako diru-laguntzaren erabilera zuzenak direla egiaztatzeko.

9.- INTERPRETAZIOA

Honako araudi hau interpretatzerakoan sor daitezkeen zalantzak Lasarte-Oriako Udaleko alkate-presidenteak ebatziko ditu.

10.- AZKEN XEDAPENAK

Honako ordenantza hau, onetsi ondoren, argitaratzen den unean jarriko da indarrean.

Lasarte-Orian, 2000ko azaroaren 2an.